



|            |  |
|------------|--|
| UNITATEA   | <b>EUSKARA ETA HEZKUNTZA</b>             |
| XEDEA      | <b>DIRULAGUNTZA IZENDUNA: ATARIA</b>     |
| ORDEZKARIA | <b>EIDER AIERBE ISASTI</b>               |
| TITULARRA  | <b>TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA SL</b> |

### ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatu Miren Garbiñe Marzol Ormazabalena, bat etorrita Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak, 2023ko uztailaren 6koak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

### IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako Udalbatzak 2017ko apirilaren 25eko Osoko Bilkuran onartu zuela Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra (aurrerantzean, DOO). Geroztik, bi aldaketa izan ditu: GAO, 68. zk., 2023-01-26an; eta GAO, 89. zk., 2024-05-09an.

BIGARRENA.- Tolosako Udalaren Dirulaguntzen 2026-2028ko Plan Estrategikoan sartua dagoela honako dirulaguntza-lerro hau: *Tolosaldeko Komunikazio Taldea (Ataria)*. Plan hori Udalbatzak onartu zuen 2025eko azaroaren 27an (GAO, 7. zk., 2026-01-13).

HIRUGARRENA.- Udaleko erregistroan, 2026ko urtarrilaren 13an (sarrera-erregistroko zenbakia: 2026-425), eskaera hau aurkeztu duela Eider Aierbe Isastik, Tolosaldeko Komunikazio Taldea SLren izenean: 2026ko jardunerako dirulaguntza izenduna jasotzea.

### KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- 39/2015 Legearen 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoaren arabera, titularrak baduela gaitasuna administrazio publikoen aurrean jarduteko, eta betetzen dituela baldintzak interesdun izaera onar dakion.

BIGARRENA.- Prozedura honetan araudi hau dela aplikatu beharrekoa:

1. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.
2. 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntza Lege Orokorri buruzkoa.
3. Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, dirulaguntzen lege orokorraren erregelamendua onartzen duena.
4. Toki Erakunde Zerbitzuei buruzko Erregelamendua, 1995eko ekainaren 17ko Dekretu bidez onartua.



5. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
6. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
7. 130/2019 Errege Dekretua, martxoaren 8koa, Dirulaguntzen Datu-base Nazionala eta dirulaguntzen eta gainerako laguntza publikoen publizitatea arautzen dituena.
8. Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra, Tolosako Udaltzaren 2023ko urtarrilaren 26an onartua eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua 2023ko apirilaren 11n (68. zk.).

**HIRUGARRENA.-** Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak, 2026ko urtarrilaren 26an, dirulaguntza ematea proposatu zuela, baita horretarako hitzarmena sinatzea ere.

**LAUGARRENA.-** Idazkaritza Saileko teknikariak, 2026ko otsailaren 23an egindako txostenean, hitzarmen-proposamena aztertutik, adierazi zuela legezko baldintzak betetzen dituela.

**BOSGARRENA.-** Kontu-hartzailatza Saileko teknikariak, 2026ko martxoaren 2an, dirulaguntza izenduna ematearen aldeko txostena egin zuela.

**SEIGARRENA.-** Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1. s) artikularen arabera, eta indarreko legeriak emandako eskumenak baliatuz, alkateari dagokiola dirulaguntza izenduna emateko eskumena. Tolosako alkateak zinegotzi delegatuei eskuordetua die eskumen hori, 2023ko uztailaren 6ko 2023/1718 Alkatetza Dekretuaren bidez.

Aipatutako guztia aintzat hartuta, zinegotzi delegatu honek honako hau

## **E B A Z T E N   D U**

**LEHENA.-** Dirulaguntza izenduna ematea Tolosaldeko Komunikazio Taldea SLri, 100.545 euroko zenbatekoarekin, 2026ko udal-aurrekontuko partida honen kargura: 0900.481.13.335.10.

**BIGARRENA.-** Dirulaguntza bideratzeko hitzarmen hau sinatzea Tolosaldeko Komunikazio Taldea SLrekin:

**DIRULAGUNTZA IZENDUNAREN HITZARMENA, TOLOSAKO UDALAREN ETA TKT TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEAREN ARTEKOA, 'TOLOSALDEKO ATARIA' HEDABIDEAREN 2026KO JARDUNA BULTZATZEKO.**



Tolosan, azken sinadura elektronikoaren datan,

### BILDU DIRA

**Alde batetik**, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, zinegotzi delegatu gisa, Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, bat etorrita Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluekin eta 2023ko uztailaren 6ko 2023/1718 Alkatetza Dekretuarekin, Tolosako Udaleko idazkari Sara Berasategui Fuertesek lagunduta.

**Bestetik**, Eider Aierbe Isasti, Tolosaldeko Komunikazio Taldea SLren ordezkaria (IFK: B-75085050), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Enrique García-Jalón de la Lama notarioaren aurrean egindako ahalordearen bidez.

Alderdiek elkarri aitortzen diote, bakoitzak esku hartzen duen moduan, badutela hitzarmen hau sinatzeko behar den legezko gaitasuna, eta, horretarako, honako hau

### ADIERAZTEN DUTE

I.- Tolosaldeko Komunikazio Taldea SLk, 2026ko urtarrilaren 13an (sarrera-erregistroko zenbakia: 2026-425), dirulaguntza izenduna jasotzeko eskaera aurkeztu zuela Tolosako Udalean, non proiektuaren eta jardueraren plana aurkeztu zuen, bat etorrita Tolosako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoarekin.

Memoria horrek ondorengo aurrekontua du: 930.510 euroren gastuak eta 928.495 euroren diru-sarrerak (diru-sarreraren zenbateko horretan kontuan hartuta dago hitzarmen honen bidez Tolosako Udalak onuradunari onartuko dion dirulaguntza).

Aurrekontu horrek ondorengo jarduera hauek gauzatzea du helburu:

- **Ataria Internet**. Webgune multimedia elikatu urte osoan, non albisteak, erreportajeak, argazkiak, audioak eta bideoak egongo diren. Urte osoan aktibo eduki webgunea, espresuki sortutako edukiekin, baita prentsan eta irratian argitaratu direnekin ere.
- **Ataria prentsa**. Asteartetik ostiralera papereko euskarrien bidez zabaldu euskarazko informazioa; asteartean, asteazkenean eta ostegunean, egunkari itxurako agerkaria, eta ostiralean, aldizkari formatukoa.
- **Ataria irratia**. Emisio jarraituko euskarazko irratia izatea, *Ataria*-ren produktu guztiak sortzen dituzten kazetarien artean osatua, saioen eta podcasten bidez.
- **Sustapen-lana**. Euskarazko hedabideetara herritar gehiago gerturatzeko



sustapena egitea, urtez urte *Ataria* izaten ari den gorakada kontuan hartuta.

II.- Entitateak egunean dituela zerga-betebehar guztiak, eta Gizarte Segurantzakoak.

III.- Entitateak ez daukala debekurik dirulaguntzak lortzeko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (DLO) 13. artikulua 2. eta 3. ataletan adierazitako gisan.

IV.- Bere estatutuen arabera, entitate eskatzailearen xedea bat datorrela hitzarmen honen bidez emango den dirulaguntzaren xedearekin eta helburuekin: hain justu ere, euskararen erabilera normalizatzearekin, euskarazko tokiko hedabideen sarea sendotzearen bitartez.

V.- Udalak 100.545 euroko kreditua duela 2026ko udal-aurrekontuan, 0900.481.13.335.10 partidan, erakunde eskatzailearentzako dirulaguntza izendunaren kontzeptupean.

VI.- 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, hau ezartzen duela 25. artikuluan: «*Udalerrriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake*».

VII.- 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, udal-eskumen izendatzen duela euskararen erabilera dinamizatzea, eta, berriaz onartzen duela helburu horrekin hitzarmenak egitea. Tolosako Hizkuntza Politikako Plan Estrategikoan (2025-2034) jaso dago hedabideak laguntzea («*EE1.7. lan-ildoak: Euskarazko hedabideak bultzatu*»).

VIII.- Hitzarmen hau honako lege-arau hauen babesean egiten dela:

- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei burukoa.
- 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, hura garatzen duen Erregelamendua onartzen duena.
- Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

Horretarako, eta bi alderdiak ados egonda, hitzarmen hau sinatu dute, eta honako klausula hauek ezarri dituzte:

## KLAUSULAK



### **Lehenena: Xedea.**

Dirulaguntza izenduna ematea Tolosaldeko Komunikazio Taldea SLri, 100.545 eurokoa, honako hau finantzatzen laguntzeko: *Tolosaldeko Ataria* hedabidearen 2026ko jarduna.

### **Bigarrena: Dirulaguntzaren izaera.**

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta, beraz, bere klausulek eta bere kasuan aplikatzekoa den legediak arautzen dute. Zehazki, honako hauen babesean ematen da dirulaguntza hau: DLOren 22.2.a) artikulua eta Tolosako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean ezarritakoa. Dirulaguntza izendun gisa aurreikusia dago Tolosako udal-aurrekontuan eta Dirulaguntzen Plan Estrategikoan.

### **Hirugarrena: Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.**

Honako jarduera hauek lagunduko dira diruz:

- Ataria Internet. Webgune multimedia elikatu urte osoan, non albisteak, erreportajeak, argazkiak, audioak eta bideoak egongo diren. Urte osoan aktibo eduki webgunea, espresuki sortutako edukiekin, baita prentsan eta irratan argitaratu direnekin ere.
- Ataria prentsa. Asteartetik ostiralera papereko euskarrien bidez zabaldu euskarazko informazioa; asteartean, asteazkenean eta ostegunean, egunkari itxurako agerkaria, eta ostiralean, aldizkari formatukoa.
- Ataria irrata. Emisio jarraituko euskarazko irrata izatea, *Ataria*-ren produktu guztiak sortzen dituzten kazetarien artean osatua, saioen eta podcasten bidez.
- Sustapen-lana. Euskarazko hedabideetara herritar gehiago gerturatzeko sustapena egitea, urtez urte *Ataria* izaten ari den gorakada kontuan hartuta.

### **Laugarrena: Hitzarmenaren indarraldia eta jarduerak egikaritzeko epea.**

Hitzarmen honek 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak.

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra bitartean egingo dira.

### **Bosgarrena: Diruz lagundutako jardueren finantzaketa.**

Hitzarmen honen bidez onartuko den dirulaguntzaren zenbateko osoa 100.545 eurokoa da, Tolosako Udalaren Aurrekontu Orokorreko partida honen kargura: 0900.481.13.335.10 (2026).



Entitate onuradunak aurkeztu duen eta diruz lagunduko den proiektuaren edo jardueraren aurrekontua —edo gerora egindako edozein aldaketa— erreferentziazkoa izango da dirulaguntzaren azken zenbatekoa zehazteko, eta zenbateko hori kalkulatu ahalko da proiektuaren edo jardueraren azken kostuaren portzentaje moduan.

Dirulaguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik jasotakoekin, kalterik egin gabe dirulaguntza horiek erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeenari.

Gerta daitezkeen kofinantzaketa-kasuek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da, eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarreraren edo dirulaguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta jatorria adierazita.

b) Finantzaketan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie dirulaguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako dirulaguntzen proportzioan.

Hala ere, baldin eta Tolosako Udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

#### **Seigarrena: Hitzarmena aldatzea edo ez betetzea.**

Aldaketaren bat gertatzen bada aurkeztu den eta dirulaguntzaren xede den proiektuan, Udalari jakinarazi beharko zaio, eta hark, laguntza eman duen organoaren arabera, berrikusi ahal izango ditu laguntzaren zenbatekoa, finantzaketa-ehunekoa edo hartutako konpromisoak. Aldaketak egiteko, aldaketa-akordioa sinatuko da.

Sinatzaileetako batek ez baditu betetzen bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak, kontuan hartuko da Tolosako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorreko 37. artikuluan aurreikusitakoa.

#### **Zazpigarrena: Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.**



Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe bat etortzea lagundutako jardueraren izaerarekin; hitzarmenean ezarritako epearen barruan egitea; eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Diruz lagungarri izango da jarduera gauzatzeko epeari dagokion auditoretza-txostena egiteak onuradunari eragin dion gastua, betiere onuraduna ez badago legez derrigortua auditoretza-txostena egitera.

Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 40.000 eurotik gorakoa bada (BEZa sartu gabe) obra-exekuzioaren kostuari dagokionez, edo 15.000 eurotik gorakoa (BEZa sartu gabe) aholkularitza edo asistentzia teknikoko enpresek egindako ondasun-horniketa edo zerbitzu-prestazioen kasuan, onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu behar dizkie hiru hornitzailei, zerbitzu-prestazio edo ondasun-horniketarako konpromisoa onartu baino lehen. Hau da salbuespena: diruz lagun daitezkeen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez egotea behar adina entitate dagokion horniketa egiteko edo zerbitzua emateko, edo gastua dirulaguntza-eskaera egin baino lehen eginda egotea, eta agiri bidez hala egiaztatzea.

Eskatu diren hiru eskaintza horiek aurkeztu egin behar dira justifikazioa egiterakoan edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskaeran, eta haien arteko hautaketa eraginkortasun-eta ekonomia-irizpideen arabera egin behar da. Hala, aukeratutako eskaintza ez bada ekonomikoki onena, txosten batean justifikatu beharko da hautaketa hori.

Gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak aurkeztu ez badira edo behar bezala arrazoitu gabe aukeratu bada proposamen ekonomikorik onena ez den beste bat, organo emaileak eskatu ahal izango du ondasunaren edo zerbitzuaren peritu-tasazio bat egin dadila, eta sortzen diren gastuak entitate onuradunaren kontura izango dira. Kasu horretan, dirulaguntza kalkulatu da erreferentziatzat harturik bi balioetan txikiena dena: entitate onuradunarena edo tasazioaren ondorioz ateratakoa.

Honako hauek ez dira, inolaz ere, diruz laguntzeko gastuak izango:

- Banku-kontuetako interes zordunak.
- Interesak, errekareruak eta zehapen administratibo eta penalak.
- Prozedura judizialek eragindako gastuak.
- Zeharkako zergak, errekuaragariak edo konpentsagarriak izan badaitezke.
- Errentaren gaineko zerga pertsonalak.



- Entitate onuradunaren ondasun inbentariagarrien amortizazio-gastuak, jarduera garatzeko erabiltzen badira (salbu eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 31.6 artikuluko baldintzak betetzen badira).

### **Zortzigarrena: Dirulaguntzaren justifikazioa.**

Entitate onuradunak justifikatu beharko du egin duela dirulaguntza jaso duen jarduera, baita jarduera horrek sortutako gastuak ere.

Justifikaziorako baliagarri diren agiriak Udalaren egoitza elektronikoan eskura daitezke.

Dirulaguntza justifikatzeko, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira 2027ko martxoaren 31 baino lehen:

- a) Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jardueramemoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera, memorian sexuaren arabera bereizita adieraziko da honako hauei buruzko informazioa: emandako zerbitzuaren azken onuradunak edo erabiltzaileak, titularrak eta langileak, eta dirulaguntza-eskaeraren xedea den zerbitzua emateko erakundeak kontratatutako langileak.

Memorian berariaz jaso beharko da dirulaguntzaren helburua bete dela, eta, hala badagokio, lortutako emaitzen ebaluazioa egin beharko da, lortutakoa aurreikusitakoarekin alderatuta.

- b) GAS dokumentua (Udalaren Egoitza Elektronikoan eskuragarri). Gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua izango du, eta bertan identifikatuta jarri beharko dira hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa eta jaulkipen- eta ordainketa-datak. Jatorrizko formatuan aurkeztu behar da dokumentua (xls.), sinatu gabe.

Finantzaketa-iturri bat baino gehiago erabili bada, adieraziko da Tolosako Udalak zer ehuneko finantzatu duen, gastu horri dagokionez.

Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen denean, gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatu egingo da diruz lagundutako proiektuaren edo jardueraren partiden arabera, izandako desbideratzeak adierazita.



Gastuaren zenbateko osoak islatu beharko du diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostu osoa.

- c) BAL dokumentua (Udalaren Egoitza Elektronikoa eskuragarri). Diruz lagundutako jardueraren edo proiektuaren gastuen eta diru-sarreraren zerrenda jasoko du, eta proposatutako ereduaren arabera jaso beharko da. Entitate onuraduneko presidentek edo idazkariak sinatu beharko du.

GAS dokumentuko gastuen zenbatekoek bat etorri beharko dute BAL dokumentuko gastuen zenbatekoekin.

- d) Erantzukizunpeko adierazpena, non egiaztatzen duen betetzen dituela 3/2004 Legeak, abenduaren 29koak, Merkataritza operazioetan berankortasunaren kontra egiteko neurriak ezartzeari buruzkoak, ezarritako ordainketa-epeak.
- e) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda zehatza, zenbatekoa eta jatorria adierazita.
- f) Gastuak egiaztatzeko, Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuaren mendeko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean jardule gisa inskribatutako pertsona edo sozietate auditore baten txostena. Erakundearen jarduera bakarrik dirulaguntza izendun honetarako proiektu komunikatiboa denean, erakunde osoaren kontu auditatuak aurkeztu beharko ditu; baina erakundeak dirulaguntza deialdi honetara aurkeztutako proiektuaz gain beste jarduera desberdin batzuk baldin baditu, orduan kontuen auditoria espezifikoa da aurkeztu beharko duena, deialdi honetara aurkeztutako proiektua soilik auditatutako duena hain zuzen ere.

**Bederatzigarrena: Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea.**

Dirulaguntza justifikatzeko epea honako hau izango da jarduera gauzatzeko epea bukatzen denetik kontatuta: hiru hilabete.

**Hamargarrena: Ordaintzeko prozedura.**

Emandako dirulaguntzaren % 75 ordainduko da ematen den unean. Gainerako % 25 ordainduko da justifikazioa aurkeztu, eta organo eskudunak onartzen duenean.

Ordainketak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari (BDNS) jakinaraziko zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.



Organo eskudunak ebazten badu onuradunak itzuli egin behar duela aurrerakin gisa jasotako zenbatekoa, osorik edo zati batean, itzuli beharreko zenbatekoari berandutza-interesa erantsiko zaio.

#### **Hamaikagarrena: Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.**

Entitate onuradunak neurriak hartu beharko ditu diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela forman, dela iraupenean; esate baterako, Tolosako Udalaren irudi instituzionalari edo haren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan, edo, bestela, hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzi berberarekin.

#### **Hamabigarrena: Euskararen erabilera eta hizkuntzaren egokitasuna.**

Euskara sustatzea denez hitzarmen honen bidez emango den dirulaguntzaren xedea, eta kontuan hartuta hedabideek nolako garrantzia daukaten hizkuntza-normalizazioan, entitate onuradunak berriaz zainduko du euskararen egokitasuna argitalpen guztietan. Aintzakotzat hartuko ditu Euskaltzaindiaren arauak eta gomendioak. Hizkuntzaren egokitasuna hobetze aldera, neurriak hartuko ditu entitateak, eta horren berri emango du Jarraipen Batzordean.

#### **Hamahirugarrena: Genero-berdintasuna.**

Honako hauek ezin izango dute parte hartu eta pertsona edo entitate onuradunaren izaeratik kanpo geratuko dira:

- 1.- Emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa urratzen duten xedeak edo helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduketa, antolaketa edo estatutuak dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.
- 2.- Berdintasunerako eta sexuagatiko bereizkeriarik ez izateko eskubidea urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigor-zehapen irmoa jaso duten pertsona fisiko eta juridikoak.
- 3.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten erakundeak edo enpresak.
- 4.- Era berean, ez dira diruz lagunduko emakumeen edo emakume-taldeen sexuagatiko diskriminazioa edo diskriminazio anizkoitzeko faktoreak eragiten dituzten jarduerak, diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk gertatzen direnean, hala



nola arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gai ei buruzko iritzia, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-joera, genero-identitatea, genero-adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibitate-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratibo.

Debekua ezartzen da, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duenaren, 4., 3. eta 27.2 artikuluetan, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 artikuluan, 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikuluan eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera.

#### **Hamalagarrena: Jarraipen Batzordea.**

Hitzarmen honen testuinguruan, bi aldeek adostu dute jarraipena egiteko batzorde bat eratzea. Funtzio hauek izango ditu batzordeak: hitzarmena egoki betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen zalantzak argiturik; dirulaguntza jaso duten jarduera guztien memoria eta ustiapen-kontua adostea; hitzarmena betetzen ote den eta zein neurritan betetzen den aztertzea; eta bi aldeen interesekoak izan daitezkeen lankidetzak bide berriak proposatzea.

Hauek osatuko dute Jarraipen Batzordea: Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburu Garikoitz Goikoetxea Etxeberriak eta TKTko ordezkari Eider Aierbe Isastik.

Tolosako Udalak ahalmena du egoki irizten dituen ikuskapen eta ziurtapenak egiteko, diruz lagundutako elkarteak hartutako konpromisoak betetzen dituela egiaztatzeko.

#### **Hamabosgarrena: Iraungitzea.**

Hitzarmen hau iraungi egingo da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

#### **Hamaseigarrena: Lan- eta zerga-legeria.**

Diruz lagundutako elkarteak bete egin beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienez.

#### **Hamazazpigarrena: Legeria osagarria.**



Hitzarmen honetan araututa ez dagoen guztirako, honako lege-arau hauetan xedatutakoa bete beharko da: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa eta hura garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Tolosako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokor Arautzailea.

**Hemezortzigarrena: Izaera pertsonaleko datuak.**

Bi aldeek konpromisoa hartzen dute izaera pertsonaleko datuei buruzko legerian xedatutakoa betetzeko, aplikatzekoak diren baldintzetan, bereziki kontuan hartuz honako hauek: batetik, 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa; bestetik, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen.

**Hemeretzigarrena: Gardentasun Ataria.**

Gardentasun Atarian eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da hitzarmenaren testua.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmena izenpetzen dute bi aldeek, eta nik, udal-idazkari naizen honek, horrena fede ematen dut.

ZINEGOTZI DELEGATUA

Miren Garbiñe Marzol Ormazabal

TKT-KO ORDEZKARIA

Eider Aierbe Isasti

Nire aurrean,

UDAL-IDAIZKARIA

Sara Berasategui Fuertes

**HIRUGARRENA.-** Hitzarmena sinatzean, dirulaguntza izenduaren % 75 ordaintzea: 75.408,75 euro.

**LAUGARRENA.-** Erabaki hauek jakinaraztea Tolosaldeko Komunikazio Taldea SLri, Euskara eta Hezkuntza Sailari, eta Kontu Hartzaitza Sailari.

**BOSGARRENA.-** Iragarkia igortzea Dirulaguntzen Publizitate Sistema Nazionalera.



TOLOSAKO  
UDALA

2026DO200003

**SEIGARRENA.-** Dirulaguntza argitaratzea Tolosako Udalaren gardentasun-atarian.

Ebazpen hau finkoa da, eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurso hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsua aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsua aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsuaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze-errekurtsuari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake, edozein unetan. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Interesdunari legearen arabera jakinaraz bekio.

**Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, udal-idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.**

ZINEGOTZI DELEGATUA

UDAL-IDAZKARIA

Miren Garbiñe Marzol Ormazabal

Sara Berasategui Fuertes



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2026DO200003-Ataria dekretua/Ataria dekretua ()